ORRILLA
9
Eguena
Bilbao, 1935

Euzkotarri

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 Irko, Irulle
Bilbao'atazkua 7,50 » »
Idazki-Itunmena 62,00 » urtez
Atzarrijetakuak 100,00 » »

Beldayen itunduba

XXII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 6.979 zenbakija

Egunekua

"Ama"

"Olantxe deritxo durangaf antzezlari trebiak datofen larunbata gabian eta ufengo igande afatsaldian Astarloa-Etxia'n antzeztuko daben antzefkijari. "Ama" antzeztutia amaftuten dabenian, "Ufetxindofa" antzeztuko dabe.

Lenengua, Uruñuela'taf Josu'k idatzija da. Bigafena, ostera, Sota-Aburto'taf Imanol'ak.

Bijak be antzezkixun politak ixango dira, ta bai irakatsi edefetakuak be.

Batez, be, Ufetxindofa, amamatxu zafaren inguruban batzen diran ume-itaune bakunak entzuten diranian, entzungafi egiten da.

Ufetxindof ganora bako aren edestija, edesti bakana da, ixan be, gero. Ufezko kayolan saftu eben. Eta kayolea, ufezkua ixan da be, espetxia zanik etxakon bururatu.

Edo bertan egonaren-egonak, bertakotu egin eban, eta andik atetiko bixiteko gauza etzala imiñi.

Eta urte askoren ondoren, bijotz on baten bidez kayola-atiak edegi yakazanian, eta osuan azkatuta geratu, jauntxubak bixi-lekutzak emon eutsan ufezko kayolatik kanpora bixi ixateko etzan gauza ixan.

Afitzekua be etzan. Bere abendako ufetxindof-abestija aiztu-egin yakan, ba. Eta ordez, jopu biurtu eban jauntxubaren abestijak ikasi. ¡A lako lotsagafirik...!

卐 卐 卐

Efotazuri'ko ufetxindofari jazo yakanik ez dagigula, guri, jazo.

Gabiltzazan bidiak-ziaf ba'gabiltza, baña, jazoko etxakunik be eneuke esango.

Gu, be, Efotazuri'ko ufetxindofaren antzian, ufezko-kayolan-edo, gagoz, ba. Eta aren antzian, geure abendelia aiztuta, kayolaratu genduzan joputzaliaren afotz-elia ikasten diñardugu. ¡Zelan ikasi be, gero! Gu afotzen izkeran jarduten garanian, afotzak eurak baño be afotz-elia obeto erabiliten dogu.

Geure abendelia, ostera, geyenoi, osuan aiztu yaku. Eta enparauko banakoi, erdija baño geyago.

Ufezko kayolan saftu genduzan ugazaba joputzaliak, txistu-egiten dausku... Eta guk, benetako jopu apal eta esangin biurtu garan gixagaxuok, aren txistu - eresi gustijak ikasten doguz.

Kayola-jaubiak, geure joputzeaz irabazi ixan dogun ogi-zatija loro edo alanbra bitaftetik bafuratuten dauskun aftian abestuten dauskun afotz-abestija, be, beriala ikasten dogu... Eta geure ufetxindof-abesti gozua baxen samufa baztafera jaurtijaz, joputzaliaren abestija abestuten dogu.

Soñak ufetxindof-lumakaz estalduta doguzala agertzen gara... Baña geure abestijak, ufetxindof-abestijaen antzik be eztaukenak dira...

Eta etofiko da... Ufezko kayolearen atiak bat-batera zabalduko diran eguna etofiko da... Eta estuntza gustijetatik azkatuta geratuten garanian, areik lenago ain mafe ixaten genduzan efeka-ganetxuko areitz ofitsubetaraño egatuteko eguetan indafik eztogula aufkitiuko gara... Areik beste aldi zoruntsubetan abestuten genduzan benetako ufetxindof-abestijak abestuteko gai ezkarala...

Gure moteltasuna uartutian, atzefijetatik -eta guk laga genduzan zugazti mafe areitaratu ixan diran beste abenda batzubetako txorijak-eta, ifi egingo dauskube... Azke ixateko gauza ezkaran jopu ezeskafi ta iguingafi batzuk baño ezkarala esango dauskube... ¡Olango negafgafirik...! ¿Efotazuri"ko Ufetxindof gaxuari gazo yakana jazoko ete-yaku, ba? Bilduf ixateko da.

卐 卐 卐

Ia, ba, irakufle, antzezkixun edef oneik ikusten, datofen larunbata gabeko bederatzi lauren gitxijagotan, eta igandian afatsaldeko lauretan, Durango'ko Astarloa -Etxia'n ixango diran antzezkixunetara eldutxu bat egin barik, etzafezala geratu.

Antzezkixun oneik bide dirala, betiko ofureari jafatubaz, euzkeraz eta efderaz irafitako egitarabak zabaldu dabez.

Egitarabok gugañe be eldu dira. Eskafikasko.

Pelota-txapelketea dala-ta

Datofen igandian Zabalbide'n ixango diran pelota-txapelketara juateko, gaf aundija dago.

Txapelketa onetako txapela, ¿norentzat ixango ete-da? Jokaldi-osterartian, jakin ez, ba.

Batzuk ofatiño, ongoxe dagoz usaña aftuta.

Oneik, ermutafak eruango ete-dabenekua diñuea. Areik, ostera, Befmeo'ra eruango dabela uste dabe.

Ermu'ko atzelarija, atzelari txukuna ta aftezija dan-afen, Befmeo'kuari eusteko, binguntxuba ei-da, ba. Befmeotafaen aufelarija be, edozeñek atzipetuteko lakua ez ei-da. Goitia, aufian, olotegijan azerija ixan oi-dan baxen bildufgafija ei-da...

Batzuk uste onetakuak dira. Beste batzuk, ez, ostera.

Eretxijak-eretxi, txapela norentzat ixango dan, igandian ikusi biafko.

¿Eta bigafena? Bigafenak be nok eruan ixango dau. Zornotza'kuak papafian ule baltzak ba-dauz be, Aulestia'kuak be ule batzuk gora-bera atzerantz egiteko lakuak eztira. Jazoten dana jazo, baña, igazi dan igandian jazo zan lako bafagafikerijarik eztafela jazo...

URIBITAŔTE'TAŔ IBON.

ARABA'TIK

Euzkotar Umien Aldez

II

Umeak ondo azitzeko eretatik, zein artu beaf degu, maitetasuna ala aginpidea?

"Nere irakaslea etofiko da orduan eta esango dit: "Berandu da ta ekafi egizuz zeure ingi ta liburuak". Baña nik erantzungo diot: "Ez al dakizu aita añakoa naizenik? —Ñik ez det ikaskizunik eman beaf."

Rabindranath Tagore.
"Ilargi befian".

Aginpidearen alde daudenak befiz ara zer esaten duten: Zer ikusia dauka umearen aziera onari buruz maitetasunaren aldean aginpideak (autoridadeak).

Gurasoak agindutako ta galerazotako gauzaren zegaitiak, umeak ulertu eta ontzat eman aftean egon beaf ba'degu umeai aziera ona emateko, aguf egin geinkio lan oneri, umeak, adiñera elduko danerako, eta aginduen eta galerazotakoen zegaitia ulertu al duanerako zuzenduta egon beaf dualako.

Umeak, bost sei urte dituanerako esana egiten oituta egon beaf du, gañeruntzian iñoiz ez da oituko.

Maitetasun eraren aldekoak, umea zuzentzen asi nai dutenerako, umeak, zuzendua izan beaf du, edo ta ez dezute iñoiz ere zuzenduko.

Urte beteko zugatz landarea bai biguna ta efaza nor berak nai duan tayua emateko!

Baña, asi zaitezte ia, urte batzuetan berak nai duan erara luzatu, zabaldu ta azi egin dan zugatz, gefi lodiduñ, basatia, zuzentzen, eta zebek nai zendukeen tayua ematen. Ez alpefik!

Iru, lau urtedun umeari, nola ulertu erazo aginduaren eta galerazoaren zegaitia? Ezin leikean gauza baita!

Eta iru lau urte oyetxek dira aziera ona artzeko nai ta naiezkoak.

Iru edo lau urte dituan bitaftean esan -bidetik eta zuzen-bidetik sartzen ez dan umea, ez degu gero iñoiz sartuko.

Maitetasun eraz umeai, aziera ona emateko, iru urte dituanean ezin leikio ezer agindu, agindurik ezin ulertu leikealako.

Beraugaitik urte oyetan umeari ezin leikio ezer ukatu. Gaxoak negaf egiten bai du, ukatu ezkero.

Gañera, zer egiten duan ez daki ta, esanik egiten ez ba'du ere, ezin ezer egin, ba!

Ara neuk, igazko udaran, neu izaten naizan ur-etxean ikusitako gauza bat.

Urte bidun umetxo batek, amaren ura edateko ontzia nai zuan bere eskuetan artu ta erabili, Amamak ez zion utzi nai puskatu egingo zuala bai zekian-ta.

Ez baizuan umeak indafik ontzi ura bere eskutxoetan erabiltzeko!

Neskamea arpegian jotzea edo, begi onduan ufatzea edo, izan ba'zan ez zion umeari aurkarik egingo. Ez ba! Zer min eman zezakean ba umetxo arek arpegian jo afen! Gañera, bai al zekian ba umeak zer egiten zuan?

Baña, ur ontzi a leyafezkoa izan noski, ta "Balneario de tal" izenduna, au da, laurleko bi balio zituana, eta umeari—txikia zan afen ukatu egiten zion. Ez umeari aziera ona emateagaitik, laurleko bi alpefik ez galtzeagaitik baizik.

Umetxoaren aitaitari ordea ez zitzaion ontziagaitik ardurarik, umearen negafagaitik baño, eta bere azi-eraren ondorenak azkeneraño eramanaz, artu umea lepoan eta esan zion:

—Atoz neurekin, edef ori, amama gaiztoa da, aitaitak erosiko dizu zuri amamak eman nai ez dizun bezelakotxe ontzia, zeuk nai dezun bezela puzkatu dezaun.

Aginpidearen alde diran egileak, ez leukie zinistuko euren begiakaz ikusi ezik, onela asitako umeak, zazpi urtetik aufera (esanak eta ukapenak entenditzen dituztenean) esangiñak edo obedientiak izango diranik.

Ezin leikean gauza dala diote.

Eta neu ere—nere iritzia gauza aula da baña—eurekin nago.

(Dafaike.)

AŔITOKIETA.

IV

Ba-dijoakigu Zalduendo efia. Efi onenak egin duala alegia, orain artekoak gertatzen ba'dira beintzat, Araba'ko efi askorenak egin dutenez. Garaien batean izan zituan larogei sendi (lareunbat biztanle). Urte bakoitzeko izan diran biztanle-zefenda (matrícula)'ri gagozkala, argi-argi ikus genezake urte batetik bestera izan diran aldakuntzak, eta aldakuntza auek, aldizka, aundi xamafak izan dirala ere bai. Beraxogo dijokizu emengo eliz-idaztietan ditugun 1886'gafenetik 1935'gafenerañoko urteko biztanle-zefendak. Zefendarik luzeena, ikusten danez 1886'gn. urteari dagokio. 1892'gn. urterarte irureundik gora izan ziran biztanleak. Geroztik ordea irureundik bera izan dira, 1915 eta 1917'gn. urteak bakafik kendu-ta. Biztanle-zefendarik labufena 1925'gn. urteari zegokiona da (213 biztanle).

Emengo agure batek dionez (Imaz'taf Iñaki, Ataun'dik iru urtekoa edo zala etofi zan, 1859'n. Orain beraz irurogeita amabost urte ditu), gogoan omen ditu erortzen ikusi dituan emezortzi etxe edefak: batzuek suak suntzitu omen zituan; besteak befiz "egonak" pofokatu. Eta zergatik "egonak" pofokatu? Ona emen: urte auetan sendi batzuek lur asko artu izan dituzte lantzeko, bi edo iru etxeai dagozkien lufak safitan. Sendi bakoitzak askidu etxe batekin bizitzeko. Beste etxeak beraz biztanlerik gabe geratzen dira, ale -tramankuluak bakafik gordetzeko gai dirala. Iñor bixi eztiran etxe auek laister oben egiten dute eta or dijoazkitzu alakoren batean lufera. Eta, jakiña, etxeak pofokatu ta etxe befirik egin ez, biztanlerik ezin ugaritu. Gauf bertan ere ba-dira lufa jotzeko orduari itxoiten dauden biztanlerik gabeko etxe zar batzuek.

Sendiak gañera igesik dijoazkitzu. Nekazaritza, emen, gogofa baño gogofagoa dezu; "oso gutxi ematen omen du nekazaritzak". Ori dala-ta or dijoaz saldoka atseden (?) bila olak dauden efietara ta uri nagusietara.

Ofa, esate baterako, Araya, orain 1500 biztanle inguruko efia: burniolak dituzu bertan. Efi ortako biztanleok urte gutxiren buruan iru edo lau aldiz ugarigo dituzu burniolak dirala-ta.

Zalduendo'tafak beste efietarako bidea ondo ikasia dutela ikusteko emen ditugu Eliza ontan artu ditugun ezkontza-gaztiguak. Ezin genezake jakin ezkontza-gaztigu oyetatik bakafik emendik iges-egin duten biztanle guztiak zenbat diran: Eliz ontan ezkonduak ere joanak bai-baitira dana dafa, iges dagitenak zenbatsu diran irakasten digute gutxienaz. Ofa ba; befogeitamasei ezkontza izan dira emen 1900-1934'ra; 112 ezkonduak beraz eta 112 oyetatik 23 ez beste guztiak Zalduendo'koak dituzu. Ogeitamabost urtetan, beraz, ogeita iru biztanle befi bakafik eldu dira ona beste efietatik (ogeitairu auek 1908'tik 1934'raño ezkondu ziran). Zalduendo'tik ordea, 1908'tik 1934'raño larogeitasei gizon edo emakume ezkondu zaizkitzu beste efietara. Alde edefa, efi ontatik bestetara ta bestatik ona ezkondu diranen aftean.

Urteak	Biztanle zefendak	Ezkontzak	Beste efietatik ona ezkonduak	Emendik beste efietara ezkonduak
1886	326	—	—	—
1887	312	—	—	—
1888	—	—	—	—
1889	—	—	—	—
7890	289	—	—	—
1891	318	—	—	—
1892	282	—	—	—
1893	282	—	—	—
1894	278	—	—	—
1895	252	—	—	—
1896	246	—	—	—
1897	249	—	—	—
1898	252	—	—	—
1899	265	—	—	—
1900	—	3	—	—
1901	260	1	—	—
1902	262	5	—	—
1903	262	2	—	—
1904	—	6	—	—
1905	—	0	—	—
1906	268	1	—	—
1907	265	2	—	—
1908	276	3	1	2
1909	272	1	—	5
1910	260	0	—	3
1911	292	1	—	2
1912	—	1	1	7
1913	279	0	—	2
1914	282	0	—	1
1915	306	5	4	0
1916	—	2	2	4
1917	310	1	—	5
1918	292	0	—	3
1919	267	3	2	4
1920	290	0	—	4
1921	260	2	2	1
1922	253	3	2	1
1923	270	2	1	1
1924	250	2	1	4
1925	213	1	—	4
1926	272	2	1	4
1927	276	0	—	4
1928	276	1	1	5
1929	—	1	1	5
1930	263	2	2	1
1931	—	1	1	4
1932	—	0	—	1
1933	—	1	—	2
1934	280	1	1	7
Danak	56	23		86

MIKELATS.

Errijetatik

GAUTEGIZ-ARTEAGA

EUP...!—Emen natofkitzube efi onetako utsunia betetan, eta gure idazlia dan "Basorde,,'ri apuf bat legunouten.

EUZKEL-IXENAK.—"Portuko" abeftzale efimia dan Aberasturi'taf Gergori'ren emaztiak, seme edef bat ixan dau. Eta ugutzan, Jon euzkel-ixen begikua ezafi dautsie.

Akordaefementeria'taf Domeka'ren emaztia be, beste semetxu bat ixan dau. Eta oneri be, ugutzan, Jon euzkel-ixena ezafi dautsie.

U. B. B.'reko diruzaña dan Aluntiz'taf Luki'ren emaztiak be, beste semetxu galant bat ixan dau. Eta areri be, ugutzan. Iñaki euzkel-ixen begikua ezafi dautsie. Zorijonak gusti-gustijoi.

GESTORAK.—Emengo udalak aftu daben erabagi bat dala ta eztala softu daun eztabaideak, efi osua dauka mafmafka.

Erabagi ori jentiari mafmafka eragiteko lakoxia da ixan be. Batez be basefitafak. Orain afte beti efitafentzat ixan dan baso zati bat, Diputaziñua'ri piñuak saftzeko emon ei-dautse, ba.

GESTORA.—Ofeik ofelako efi-kalte diran gauzetan ainkea saftziaz egiten daben kaltia, aunditxuba da ixan be gero. Efija zuzenduteko alagalako "aministraziñua" darabilzkube eurok.

Gestora ofeik diñuenez, eurak "aministraziñuan" saftu ixan diran afte, efija txafto "aministreuta" egon ei-da.

Orain efiko basuetan Diputaziñuarentzako piñuek saftzen dabezenian, baña, dana afegelauko dabe.

Basefitafak gosiaz il afen, ¿zer ardura dau, ba? Ofei, basefitaf gixagaxuai, iliten diranian be, irugafen klaseko entiefue egiten yake, ba.

Onguon, beñepein, oneikaz udal-ixun bafijokaz, ondo aministreuta egongo gara. ¡Bai bein...!

MORTZABE.

LARRABETZUA

ABEŃI-EGUNA. — Aurtengo Abefi -Eguna ospatuteko Iruña'ra juan biafian aurkitzen gara.

Eta ori dala-ta, egun ofetan Iruña'ra juan al-ixateko, gure Batzokija'k belbil edef bat gerteuko dau.

Beraz, bagilan 9'gafenian Iruña'ra juan gura daben gustijei, auxe eskatuten yake: aufetik euren ixen-abixenak Batzokija'n emon dagijezala.

Azkenera begira geratuzkero, bai-dakigu, ba, zer jazoten dan.

Arazo onetzaz egin biaf dozubena zer dan, irakufi dozube. Beraz ez aiztu zeuben egin biafakaz.

MENDI.

EREÑO

EUZKEL-IXENA. — Garai'taf Joseba ta Agife'taf Elene senaf-emaste gastiak, semetxu bat ixan dabe. Eta ugutzan, Joseba euzkel-ixen polita ezafi dautsie.

Besuetan aftu dabenak, Agife'taf Timota ta Garai'taf Todore ixan dira. Zorijonak gustijoi.

BASATIJAK EDOÑUN. — Ereño'ko elexan aspalditxubon, batzuk bafeka, beste batzuk kiñuka, ta olakoxe basatikerijak egiten ibiliten dira. (1)

Eta zeregin iguingafi oneitan ibilten diranak, onixek goirengo "katolikuak" ei -dira.

"Katoliku"-ixena barik, basati-ixena irabazita daukien onein ugutzako ixenak eta euren abixenak be, ondo ezagutzen doguz. Gaufkuagatik eztoguz argitalduko. Baña beste egun baten orain aftian lez Elexa doniaren ifigafi Elexaratuten ba-dira, izpafingi onetantxe argitalduko doguz.

Elexara, otoi-egiten edo biaf dan lotsa onian egoteko juaten da, ba. Eta ez satikerijak egiteko.

Arazo onetzaz, gixonezkuetzaz eta emakumetzazkuetzaz be bai-dago zer esa Oneik "Margaritataftekuak" ixango dira, esan barik be igafita dago. Oneik euzkerazko "Aguf Maria'ri", "Santa María, Madre de Dios" eta abaf bestiena entzuteko eran esaten dabe. ¿Aita Santa'ren aginduba zuzen betetutiafen?

IXIDOR DEUNA'REN EGUNA. — Ixidor Deuna'ren eguna, aurten jai-egun erabagi dau gure Alkaf-Laguntzea'k "koperatibiak".

Egun ofetan jaupa nagusija, gure amafetan egongo da. Eta txonitza kanko jaupari batek egingo dau. Bazkaria ixango dogu, baita eromerija be.

Ondo bazkaldu-ezkero, jolastu be egiran egingo doguala uste dot.

OGI-ARAZUA. — Ogidunakaz bafagafija jazoten da, emen. Egun batan, amairu txakufian ogija saltzen be. (2) Eta beste egun batzubetan, lauan.

Olako bafagafikerijarik geyago jandedin, geure Alkaf--Laguntzeak ogija afiko dau, ta beste edozeñek baxen ogi ekafi be. Eta beti saneufi bat ixango ta ez ofeik ogidunok lez, gauf saneufi eta bijaf beste bat.

OTAMENDI.

(1) Olako basatitxubei, afan aundina idunetatik iminden yakeze, ta mendi bidaldu. Basatijentzat mendija lakoxa dago, ba.

(2) Ni, of bixi ba'nitz, amairu kufian saltzen dabenian bakafik ogija siko neuke. Eta amalauan saltzen dinian, eurak jateko laga.—I.

BEDOÑA

Poliki, poliki, eltzen dijoa gure aundia; au da, Loramendi gure amanaren omenez "Euskaltzaleak" eratu VI'gn. elerti eguna. Egun zofagarian rak diranez, Donosti, Tolosa, Bergara, Oñati, Durango, Bilbao, Gazteiz eta ruetako euskaltzale geyenak etortzeko moa dutela ziur gaude. Ofegatik diot, gogoangafia izango dala, gu, Bedoñatzake. Zalantza gabe esan dezakegu, arte ezagutu degun euskal-usaiko aundiena Garagafilaren 2'na izango Ofetarako Euskaltzaleak jai aldi -egoki batzuek antolatu ditu. Bezperan Afasaten. "Gurea" pelota-tokian, ospatsu bat azalduko da. Ufengo egun elerti egunean, Bedoña'n jaupa nagusia, ondoren "Loramendi" zanaren izenean, oimen bat jafiko da bere jaiotetxean, karia ere bertan izango da. Afatsaldeko Aretxabaleta'ko enparantzan euskal jaiegi patsu batzuek. Gai onezaz geroxeago egingo degu. Oraingoz ongi deritzat gaitzea, Euskaltzaleai laguntza eskefii diogula, ez bakafik gogoz, baizik ere bai. Ofetaroko Aretxabaleta'ko Bedoñakia arpide bat irikia dago, eta nai duen zerbait eman, badaki nun eman.

Askok ez dute jakingo Bedoña nun kitzen dan, eta usteko dute bear badau uti egongo dala. Ez ba euskaltzaleak dago ufuti. Afasate'tik geyenez ere, amaiminuto eta Aretxabaleta'tik ordu laurenbat. Ez da ba bide aundia, eta beraz Euskaltzaleak bagera, Bedoña'n gure aspegia erakutsiko dogu.

Garagafilaren 2'an guziok Bedoñatik

INGI BILDEGI
Papelería de Oria.
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
Teléfono, 154. TOLOSA

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

SAÑA

(5)

Atal bakar bateko antzerki

Garro'tar Bernarta Ma'k

Ipar-Ameriketa'ko beste antzerki batetik euzkeraz atondua

(Jafaipena)

ZENDOKIZ. — (Bigunkeriaz). Ezin aguantau—zer, baia. Mari-Jesus?

MARI-JESUS.—(Urdalenak jota legez). Emengo gogortada ta bastokeriya; oneek gixon astuok; au untzi ikaragafi au, eta kartzelia baño eztan kamara au, eta inguruko lei guztiya, eta ixiltasuna...

(Zoratu egin bai'litxakion esango dauan au jaurtita, baretuten asten da, eta gero, mosu zapiaz, begiko malko negafak legortuten dituz.)

ZENDOKIZ.—(Zati baten isilik egongo da emazteari goitik eta beera begira, zer esan ez zer asma ez dakiala, eta betosko ilunez). Mari-Jesus; gomutauko yatzu, oyez, enintzala ni ixan zu ona untzira etoftia gura ixan nebana.

MARI-JESUS.—Ñeuk gura ixan neban etofi—zeugaz egotiafen—bai ondo be —zeugaz egotiafen. Zazpi urtian—zazpi urte luzetan egon izan nintzan bakafik, ezkondu eta lasteftian. Zazpi urtian gure Mundaka'ko etsian, ezkondu bafi nintzala, zeure gomutiaz beste lagunik enebala—zure bafiyak itxaroten beti—zure etofeririaren begira beti—eta txafik yazoko ete yatzun bilduffafen beti. Neure bakaftasuna, eruankofagua ixateko, zetan edo atan gogua emon al ixan ba'neu, gatx-erdi; baia zugaz ezkontzeko, Kanale'n euki ixan neban eskolia itxi egin neban, eta biximodu bafiyan, ezin yuan zeitekian bafiro eskola-maistra triste bat ixatera Zendokiz Kapitan entzutetsuaren Señoria! (Isil-une labuf bat. Azkeneko itzokaz erabili dauan destaña-doñua itzirik, bafiro maitasunez). Zugaz amesetan beti, neuri be itxaso zabalean ziaf ibilteko amesak softu yatazan, alan zeure onduan egon nintekialako beti, nai zoriyonetan, nai afiskuetan; nai bixitza gogofian. Mundaka'n bakafik egon baño, nayago ixan neban zugaz etofi, Bizkai guztian eta Amerika zabalian ain entzute andiko gixonaren onduan egoteko. Eta Bizkai'ko itxas-gixonok untzi onetara ekafi zenduzanian, ni be—neuk eskatuta —ekafi egin ninduzun Ameriketa'ra; eta Homeport'etik zuek urtetian, ni be—neuk eskatuta—zeugaz ekafi ninduzun untzi onetara, enebalako gura bafiro be zu barik luzaruan egon, eta Mundaka'ko bakartasunak softu erazo eustan itxaso zaletasuna betetu gura ixan nebalako. Eta neure gura-ixan onen ordez... (Abotsa geroago dardarago yoako, maite-miñez)—emen topa dotan guztiya—ezta leya eta otza baño—eta gogofkeriya eta bastokeriya! (Negaf sotinka istanda egiten dau).

ZENDOKIZ.—Ofaitiño, Mari - Jesus, aufetiyaz esan notsun: "Bale-afaintzua ez uste ixan gero Almika'ko efomerira yuatia lez danik"—bein eta bafiro esaten notsun: "Obeto zagoz etsian, ezer ialtaten etxatzun lekuan". (Buruari eragiñez). Baia, ezenduan entzun gura—zeure temiaz urten zenduan.

MARI-JESUS. — (Gogait-egiñik eta deskeila). Oi! ba-dakit zure efua eztana, Jose Migel. Bai; enotsun siñistu gura ixan. Orain ikusten dot argi, liburuetan safi leiduten diran arako gixon entzutetsuen biyotz-zabalak, amesetako gauzak baño eztirala. Zu be aretarikua ziñala uste ixatia ixan da nire okefa.

ZENDOKIZ. — (Emazteak esandakoaz minduta). Neure alegin guztiyak egin dotaz nik, alik erosuen eta alasuen emen bixi ixan zaitezan. (Mari-Jesus'ek bere ingurura begiratuten dau—gelako bazterétara—agirizko destaña eta iguiñaz). Ganera—emen daukozun armoniyu ori be—Vancouver'en aginduta zeuetzat ekafi neban ona—uste ixanik, biarba, kalma egunetan eta untziko gauzak triste etozanetan, gustau egingo yatzula armoniyua yotia gogaitik ez egiteko.

MARI-JESUS.—(Gogait-egiñik). Bai, Jose Miel; on utsa ixan zara zu, Jose Migel. Ondo dakit ori. (Geyago barik, ezkef aldera doa, eta alki-zabal ganeko efezelak alboraturik, leyatilotik begira-begira jaften da. Gero, bat-batean, istanda egiñikoa legez biurtuten da). Eztot aguantako—ezin neike geyago aguantau—ormaon bafuan beti, kartzela baten lez! (Senafagana joanik, beso biak ezaften dautsoz kokot inguruan, laztan egiteko legez, eta negafez asten da. Senafak, sorbalda ganean iminten dautsoz eskuak, babestuteko legez). Atara naixu emendik, Jose Migel! Atara naixu! Untzi bilduffafi onetarik kanpora ezpa naruazu, zoratu egingo yat burua! Eruan naixu etsera, Jose Migel. Pentsau be ezin dot, Jose Migel, buruak uts emongo ete dostan bilduffaz! Emengo otza eta emengo ixiltasuna buruko garunetan saftuta bai'neukozan legez sentiduten dot. Bilduf naz ni! Eruan ni etsera!

ZEÑDOKIZ.—(Emaztearen sorbaldetan eskuak euki daukozala, luzetu egiten dituz besoak, eta aren arpegiari adi-adi jaften da, urduri-urduri). Oba dozu oira yuatia, Mari-Jesus. Ezagoz zu zeure senian. Berua daukozu. Zure begiak eztakit zer bafegafi emoten daben gauf. Ezaitut orain lez eguno ikusi.

MARI-JESUS.—(Bafe gangafez). Bai, leyak egiña da—eta otzak—eta ixiltasunak. Onetaraxe bafegafi itxuran iminten dabe edonor.

ZENDOKIZ.—(Gozotasunez). Suerte ona ixan ezkero, ile bat edo bi bafu—geyen -geyen be iru ilabete bafu—untziya sañez bete-beterik eukiko dogu, eta, orduan, untziyari andana guztiya emonda, beingo baten yuango gara etsera.

MARI-JESUS.—Baia, ezin itxaro giñei ofen luzaruan—nik ezin itxaron neike. Etsera yuan gura dot nik. Eta gixonak be ezin itxaron leikie, Areek be etsera gura dabe. Dolorkeriya eta astokeriya da gixonai emen egoten erazotia. Atzera egin biaf dotsazu untziyari. Eztaukozu atxakirik. Itxasua garbi-garbi dago eguarantza. Biyotzik ba'daukozu, atzerantz egin biaf dozu.

ZENDOKIZ.—(Gafatz). Ezin dot, Mari-Jesus.

MARI-JESUS.—Zergaitik, baia, ezin?

ZENDOKIZ.—Andra batek ezin ulertu leiz ondo nire efazoiak.

MARI-JESUS.—(Ao-betez). Ganorabako efazoiak diralako! Zeure buru-gogofkeri bat baño eztalako! A, bai; pilituagaz berbetan egon zarianian entzun egin dotsut. Zu bilduf zara beste untziyetako kapitanak baferik egin eztaixuen zeure untziya sañez beterik eztaruazulako. Zuk gura dozuna ezta besterik zure entzute andiyak iraun dayela, zure famia galdu eztaitiala—nai ta ofetarako bafuko—gixon guztiyak golpeka ta gosekilik erabili eta neu be zoratu agiñian imiñi.

ZENDOKIZ.—(Tematiak legez okotza aterata). Ezta ori, Mari-Jesus. Areek kapitanak eztira kapaz niri arpegira bafe egiteko. Alako batek esan leistenagaitik, eztost niri bape ardurarik—baia—(Zalantzan jarten da eta bere asmua zelan esan ezin dau asma). Ara—nik—zeuk be ba-dakixu ondo—kapitan lenengo biajia emon nebanetik afezkero—beti egin ixan dot bardin. Beti etofi ixan naz portura—untzibete sañegaz—eta—zetarako ukatuko dotsut?—ezteritxat ondo oingotan be olan ez egitiari—dana-dalakuagaitik. Neu ixan naz beti Homeport'etik urteniko bale-afaintzuko kapitanik obiena—eta, egin-egiñian be—oraingo biajian euzkaldunakin urten lenengo bidafez afaintzuan—eta Amerikanu kapitanen azpitik gelditutten itxiko ete dotsat neure buruari, ba? (Zendonire asmua aituten, Mari-Jesus? (Zendokiz'ek andreari begiratuten dautso. Andreak baña, ez dautso senafari begiratuten. Liluratuta legez dago, aufera begira, begiak zabal-zabalik, eta agiñez eztautso senafari berbarik arean entzuten). Mari Jesus! (Mari-Jesus senera datof darda-ikara bat eginda). Dozu kamara bafura yuan. Ixan zaiter nekua. Zu ezagoz ondo.

MARI-JESUS. — (Senafak bafeza aterantz eroan nai dau, baña aren alegiñari uzkuf jaften yakola). Jose Migel Mesedez—enozu etsera eruan gura?

ZENDOKIZ. — (Ontasunez). Ezin dot Mari-Jesus; apurtxu baten ezin dot diño. Zuk eztozu nire asmua aituten. Seña atrapa biaf dot. Bizkai'tik ekafi indotazen gixonak ezin neikez esku-ura itxi. Gerorako be, irakazpidia irakatsi bidotsate. Saña atrapa biaf dot.

MARI-JESUS.— Gixonokaz eztaukozunik oñezkero. Aspalditik dagoz gogoeginda—oraingo eta betiko gogait eginda. Eta saña, zetarako biaf dozu? Dirua eteko? Zuk zeuk dirurik biaf ixan ba'ziteztiñot ezetzik; baia, zuk eztozu diru bafik. Naikua ta geyago daukozu dirulendik egiñikuaz be. Eta orain atrapa gura dozun saña barik be, Bizkai'tik ekafi zenduzan gixonori kontratuko urte bipagauko ba'zeuntsez be, eleuke zure botsiak igafi be egingo, eta gixonok pozozik itxiko zeunkez geyagoko sañaren amu barik.

ZENDOKIZ.—(Egonafia galduten asi—eféta). Eztost niri diruagaitik ardurik! Uste dozu zuk diruagaitik nabilela ni ala? Eztakixu zuk nire asmuen bafi, eta yakin be eztozu egin gura!

MARI-JESUS.—(Gogait egiñik). Ezinik eztakit ezer—nik eztot aituten ezer.

(Dafai.)